



Zer ordaintzen ari gara?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- MATEMATIKA.

HELBURUAK

- Produktu baten ekoizpen eta merkaturatze-prozesuaren faseak eta horiek azken prezioan duten eragina aztertzea.
- Markako produktuek merkatuan duten arrakastaz eztabaidatzea.

MATERIALAK

- ◆ Fitxa originala (ikus Iturriak) edo honako fitxa honen fotokopia.

Jardueraren garapena

MARKA EZEZAGUNeko praka bakeroen eta nazioarteko ospea duten praken arteko prezio-aldea bistakoa da; zergatik ote? Horixe da ikasleek hausnartu beharreko gakoa.

Horretarako, Finantza-gastuak %0,45

A. Antolatu ikasleak sei taldetan;

talde bakoitza Proiektua %3,88

berak aukeratutako markako

zapatilaren Zergak %1,77

fabrikazio eta

salmenta prozesuaren maila bat

izango da. Zapatilaren

marrazkiaren

gainean

idatziko dute egokitu zaien maila:

- Lehengaiak, amortizazioak eta garraio zein biltegi-gastuak.
- Eskulanaren trukeko soldata.
- Produktuaren banaketa.
- Administrazio-gastuak.
- Publizitatea eta babesak.
- Enpresako akziodunen mozkinak.
- Beste batzuk (atal honetan,

zehazten zailak diren beste alderdi batzuk jasotzen dira).

B. Talde bakoitzak honako problema hau ebatzi beharko du:

Atzerrikoei ordaindu beharreko tasak %0,95

Zapatilek 60 euro balio badute, eta zehazten zailak diren kontzeptuetarako %7,73 erabiltzen bada, zenbateko ehunekoa eta zenbat diru dagozko talde bakoitzari?

Datu hori aurkitu ondoren, batu sei emaitzak, azken prezioa

60 eurokoa den jakiteko. Atal horretan, talde bakoitzak proposatu duen ehunekoari buruz eztabaidatuko du, doia den ala ez ondorioztatzeko. Banaketa egokia ez bada, orekatu arte errepikatu beharko dute.

C. Azkenik, sei kontzeptuen benetako banaketaren berri izango dute. Kontrastatu proposatu dutenarekin eta esan bidezkoa den ala ez.

BENETAKO DATUAK

1. Lehengaiak, amortizazioak eta garraio-zein biltegi-gastuak: %29,35 ■ 2. Soldata: %0,18 ■ 3. Banaketa: %39,62 ■ 4. Administrazio-gastuak: %10,82 ■ 5. Publizitatea eta babesak: %9,50 ■ 6. Akziodunen dibidenduak: %2,80

Iturria:

HAINBAT EGILE. **Ingurugiro Hezkuntzarako Materialak // Materiales de Educación Ambiental: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza // Educación Secundaria Obligatoria: Ekonomi-jarduerak eta ingurugiroa // Actividades económicas y medio ambiente.** CEIDA-Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa // Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 1996.